



## ERANSKINA

### UPV / EHUko ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK

### EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

2021eko deialdia

UPV/EHU<sup>n</sup> euskararen erabilera areagotzeko eta euskara lan-hizkuntza izan dadin bermatzearen, UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidariak aurreikusten du Administrazio eta Zerbitzuetako langile orori baliabideak eskaintzea lanerako hizkuntza gaitasuna eskuratzeko ikastaroak egin ahal izan ditzaten. Ikastaro horietako batzuk UPV/EHUk HAAE-IVAPekin duen hitzarmenaren bitartez dituen programen eta deialdien bidez egiten dituzte AZPko langileek. Halaber, azken urteotan, administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzendutako diru-laguntzen deialdiaren bidez, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzak sustatu egin du euskara ikastea. Hori horrela, deialdi hau egiten da, 2020/21 ikasturtean zehar UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek egindako ikastaroak diruz laguntzearen.

Hori dela-eta, honako deialdi hau egiten da:

## OINARRIAK

### 1. DEIALDIAREN XEDEA:

Deialdi honen xedea da 2020/21 ikasturtean zehar, hau da, 2020ko urritik 2021eko irailera arte, euskara ikastaroak egin dituzten UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileei diru-laguntzak ematea. Horretarako, kontuan hartu da [2021eko uztailaren 7ko EBAZPENA](#), Habeko zuzendariarena non 2020-2021 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei diru-laguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egiten duen. Deialdi horren bitartez, euskara-maila egiaztatu duen euskara ikasleak (EAEn erroldatuta egon behar dena) berak ordaindutako matrikula-kosteak bere osoan edo zati batean konpentsatu ahal izango dira, diru-laguntza handiena A1, A2, B1 eta B2 mailek dute.

Horregatik, deialdi honen bidez, bakarrik lagunduko dira diruz C1 eta C2 mailako ikastaroak: aurrez aurrekoak, jardun bikoak, barnetegikoak zein autoikaskuntzakoak. EAEn erroldatuta ez daudenak eta A1, A2, B1 edo B2 euskara mailak gainditu badituzte, salbuesiak egongo dira eta diru-laguntza hau eskatu ahal izango dute.

Ez dira diruz lagunduko Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikastaroak.

Ez dira diruz lagunduko ikaskuntza-materialen, software-lizentzien gastuak, edo bestelakoak, barnetegiaren kasuan izan ezik. Barnetegiaren kasuan, ostatatze-gastuak ere hartuko dira kontuan, baina ez bestelakoak: joan-etorriak, bisitak...

Hori dela eta, Administrazio eta Zerbitzuetako langileei diru laguntza emango zaie, hurrengo baldintza bete ostean:

- Diru-laguntza emango zaie IVAPeko erakundeak euskara ikasteko ikastaroetatik kanpo geratu direnak, IVAPek emandako ordu-kreditua agortuta izateagatik.
- Ordu-kreditua izan arren, IVAPeko erakundeak egindako deialdietan ezin izan bazuten parte hartu, UPV/EHUko langilea ez izateagatik; eta horrela justifikatzen dutenekin salbuespen bat egingo da.
- Deialdi honetan, eskatzaile batek ikastaro bat baino gehiago egin badu, diru-laguntza ikastaro garestienagatik emango zaio. Hurrenez hurren, C1 eta C2 mailetako bi ikastaro egin badira, biak lagunduko dira diruz, baldin eta asistentzia



eta aprobetxamendua egokiak izan badira, betiere, deialdian ezarritako gehienezko diru-laguntzaren muga.

## **2. ESKATZAILEAK:**

Deialdia argitaratzen denean lanean diharduten UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langileek diru-laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte.

Hala ere, **diru-laguntza eskatu ahal izango du euskara ikastaro osoa iraun zuen bitartean, eskatzaileak demostratzen badu, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko langilea izan dela.**

Eskatzaileak A1-A2-B1 edota B2 ikastaroa egiteagatik diru-laguntza eskatzen badu, EAetik kanpo erroldatuta dagoen ziurtagiria aurkeztu behar du.

## **3. ESKARIAK:**

- a) Eskaria egiteko, deialdi honi atxikitako inprimakia erabili behar da.
- b) Eskariarekin batera **dokumentazio hau aurkeztu behar da:**
  - **Aprobetxamendu-agiria: ikastaroaren zehaztasun hauek jasoko dira:**
    - Ikastaro emalea (euskaltegia, hizkuntza-eskola...)
    - NIF
    - Ikastaro-mota (aurrez aurrekoa/jardun bikoja/autoikaskuntza/bametegia)
    - Ikastaro homologatua (BAI/EZ)
    - Matrikularen zenbatekoa:
    - Ikastaroaren hasiera-data:
    - Ikastaroaren amaiera-data:
    - Orduetgia:
    - Iraupena (ordu-kopurua)
    - Asistentzia-datuak (emandako eta hartutako orduak) %
    - Ikastaroaren maila (C1.1/C1.2/.2.1/C2.2)
    - Maila gaitutua: BAI/EZ

Matrikularen kontzeptuan eskola-saioei dagokien zenbatekoa baino ez da hartuko kontuan, Kanpoan gertuko dira joan-etorriak, ostatu-gastuak, materialak edo software lizentziak.

- **Ordainagiria.**
    - **Euskaltegietako matrikularen kasuan,** jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko da. Kutzazain automatikoan egindako ordainketek euskaltegiaren edo enpresaren zigilua izan behar dute.
    - **Hizkuntza-akademien kasuan,** jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.
    - **Euskaltegietatik kanpoko autoikaskuntzako programen kasuan,** kontratua aurkeztuko da fakturarekin batera.
  - **Zinpeko aitorpena:** bertan deklaratu da bestelako diru-laguntzarik jaso den, eta, hala bada, diru-laguntzaren emalea eta zenbatekoa.
  - **Erraldotze-agiria:** EAEn ez badago erroldatuta.
- c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.es/eu/registro-electronico>.



Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

- d) **2021. urtean epe bakarra** irekiko da eskariak egiteko: **2021eko urriaren 28tik azaroaren 12ra (biak barne). Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaririk.**
- e) Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskarien zerrenda argitaratuko da Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean. Zerrenda horretan adieraziko da, halakorik egonez gero, eskariak zuzenketaren bat behar duten edo dokumentazioa falta den. Eskatzaileek **10 laneguneko epea** izango dute falta den dokumentazioa aurkeztu edo akatsak zuzentzeko. Epearen barruan zuzenketak egin ezean edota dokumentazioa aurkeztu ezean, eskatzaileek atzera egin dutela ulertuko da.

Onartutakoen eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean argitaratuko da.

#### **4. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:**

Irizpide hauek aplikatuko dira zehazteko eskatzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa:

- a) Eskatzaileei, gehienez ere, matrikularen % 75ari dagokion zenbatekoaren adinako diru-laguntza emango zaie.
- b) Eskatzaileek, gehienez ere, 750 euro jasoko dituzte C1 mailako ikastaroen matrikulagatik eta 900 euro C2 mailako ikastaroengatik. Ikasturte berean bi mailak egin dituztenek, gehienez ere, 1650 euro jasoko dituzte.
- c) Aurreko deialdietan maila bereko ikastaroak egiteko diru-laguntza jaso bazen, zenbateko hori kontuan hartuko da 2021eko deialdian jaso beharrekoa kalkulatzeko orduan. Deialdi guztiak kontuan hartuta, ezin izango dira orotara gainditu b) epigrafean zehaztutako kopuruak.
- d) Iraupen luzeko autoikaskuntza-planen kasuan, epealdiari dagokion zenbatekoaren kalkulu proportzionala egingo da, eskatzaileari 2021ean zer kopuru dagokion zehazteko orduan.
- e) Iraupen luzeko autoikaskuntza-planen kasuan, bakarrik kontuan hartuko dira deialdi honetan C1 eta C2 mailaie dagokien epealdia.
- f) Iraupen luzeko autoikaskuntza ikastaroen kasuan, kontratu beragatik aurreko deialdietan jasotako diru-laguntza kontuan hartuko da deialdi honetan



- eskatzaileari dagokion zenbatekoa zehazteko orduan. Deialdi guztiak kontuan hartuta, ezin izango dira orotara gainditu b) epigrafean zehaztutako kopuruak
- g) Ez dira kontuan hartuko honako gastuak: materialak, software-lizentziak, finantzaketa-kasuak (ikastaroaren zenbatekoa epeka ordaintzen den kasuetan), eta, oro har, eskola-saioen kostuz bestelako kontzepturik.
  - h) Barnetegien kasuan, berriz, kostu osoa hartuko da kontuan: ikastaroa + ostataratzea.

Eskarien kopuruak hala behartuko balu, diru-laguntzen zenbatekoa murriztuko litzateke dagoen aurrekontura egokituz.

## **5. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte diru-laguntzak eskuratu ahal izateko.

- a) Eskatzaileak aurreko ataleko irizpideen arabera legokiokeen zenbatekoaren % 100 jasoko du (gehienezko kopuruak gainditu gabe), bi baldintza hauek betetz gero: a) % 80tik gorako asistentzia; b) maila gainditu izana.
- b) Eskatzaileak aurreko ataleko irizpideen arabera legokiokeen zenbatekoaren % 50 jasoko du (gehienezko kopuruaren % 50 gainditu gabe), baldin eta: a) asistentzia % 60-80 bitartekoa izan bada, edota b) asistentzia % 80tik gorakoa izan arren, ez badu maila gainditu.
- c) Irizpide hauek modu independentean aplikatuko dira, eskatzaileak maila ezberdineko bi ikastaro egin dituenean.
- d) Autoikaskuntzako programen kasuan, kontratuan zehaztutako baldintzak hartuko dira erreferentzia gisa irizpide hauek aplikatzeko orduan.
- e) Ez dute diru-laguntzarik jasoko maila gainditu ez, eta asistentzia-irizpidea betetzen ez duten eskatzaileek.

Deialdi honetako diru laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatuk xede berberaz emandakoekin. Alabaina, halakorik jaso bada, hala adierazi behar da eskariarekin batera aurkeztu beharreko zinpeko aitorpenean. Beste iturrietatik jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuko da deialdi honetan jasotzekoa den kopuruaren kalkulua egitean. Orotara, eskatzaileak ez du jasoko deialdi honetan aurreikusitako gehienezko kopurua baino laguntza handiagoa, jaso dituen laguntza guztiak kontuan hartuta.

## **6. ERABAKIA ETA ORDAINKETA:**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak erabakia emango du, eta onartutako eta ezetsitako eskaeren zerrenda zein atzera egindako eskaerena argitaratuko ditu. Interesdunek horren berri jasoko dute Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan eta webgunean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, epe bakarrean egingo da diru laguntzen ordainketa.

## **7. INTERPRETAZIOA**



Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak baimena du deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko beharrezko beste arau batzuk emateko ere.

#### 8. **ERREKURTSOAK.**

Deialdiak administrazio-bidea amaitzen du, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, berdin zenbatutako bi hilabeteko epean.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza